

Desio bat eta bakarra

Antton Izagirre

Izaten dira ba urteak, «joanda balego hobe» pentsarazten dizutenak, nork ez du horrelako bat izan? edo nork pentsa lezake ez duela etorkizunean izango?

Aurten ez diozu Olentzerori idatzi, edo hobeto esan, aurten ez etortzeko esateko idatzi diozu. Aurten etxeko tximinia itxita izango duzula eta ez diozula goxo eta ardorik utziko idatzi diozu. Aurten oparirik ez ekartzeko, baina hala ere, ez mintzeko zurekin, ulertuko duela eta. Eta urte berrira iristean, urteroko mahatsen ordezt, gehienezt ere ma-

haspasak irentsi dituzu eta urte berrirako desio zerrenda egiterakoan ez duzu hitz bat besterik topatuko; osasunari deituko diozu aurten.

Non jarriko dituzu ba lehentasunak, gehien maite duzun pertsona gaixotasunarekin borrokan ari denean edo zure lagunik handiena birus maltzur horrek jota eri duzunean edo kuadrillako beste lagun hark bihotza ahul duenean?

Agian inoiz ez zenuen pentsatu ere egingo urteroko desio zerrenda luze hura, «egunero korri egin edo bost kilometro ibili, gimnasia joan, erretzeari

utzi, kilo batzuk kendu, yoga egin, bizimodua moteldu, lagunekin gehiago egon, bizitza kalitatea hobetu, neure burua maitatu, irribarre egin, zoriontsua izan...», desio bakar batera mugatuko zenuenik.

Baina nolakoa den bizitza, hain sinplea eta aldi berean hain bete, pentsatuko duzu. Bai, urte berrirako zeuretzat eta gertukoentzat ez duzu besterik desio, hitz bakar batekin beteko duzu bizitzaren orri zuria.

Eta beste guztiontzat, urtero bezala: zorionak eta urte berri on! •

Auto

Miren Azkarate
Badiola

Modako hitz bat dugu beti ahoan, bat-batean egunean hamaika aldiz eta alde guztietatik entzuten duguna. Garaian garaian beti izan dugu bat: ETA, pandemia... Ziur zuei askoz gehiago datozkizuela burura. Bada, orain, hitza baino aurrizki bat dugu azken egunotan hortxe traka eta traka eta traka: «auto-». Autotestak, autokonfinamenduak, auto-rastrea, auto-bajalaborala, autokarabana (aizue, umore pixka bat! Eta gainera, nire inguruan modako hitza da hau ere bai)... PNV-EAJk esaten zizunean «autogobernu gehiago eskatuko dugu eta lortuko dugu», hau ote zen? Edo hau da alderdi egunean oihuka-

tzen duten «In-de-pen-den-tzia!»? Oso auto eta oso independente izateko errepikatzen ari zaizkigu eta... Gehiegi agian!

Hau guztia hain larria izango ez balitz barre egingo nuke, baina honezkeror PNV-EAJk barregura gutxi eragiten dit. Beraien azkenak barregurea sortu ez, baizik eta amorru handia eragin dit: Rosa Zarra auto-hil omen zen! Ez zuen bost metrotara bota zioten gomazko balak hil. Berdin-berdin hilko omen zen. Txalo bero bat Ertzaintza eta PNV-EAJ! Noski hilko zela noizbait, denok bezala, zuek bezala. Baina hau ez zen heriotza natural bat izan, badakigu guk eta badakizue zuek.

Nola ez, historia honetan EITB ere azaldu behar zen. Zein azkar errektifikatzen duen segun zer eta segun nork eskatzen diona! Batzuek, eskatuta ere ez dugu inoiz lortu errektifikazio bat esan dituzten izugarrikeria batzuentatik; dela Galindo goraiatu zutenekoa edo dela beraien kazetari bat notiziarekin zerikusirik ez zuen Guardia Zibilaren txaleko batekin azaldu zeneko hura. Auto-errektifikatu zaitezte!

Ez dut inoiz ulertu nola bozkatu daitekeen PNV-EAJ, baina gero eta zailagoa egiten zait ulertzea, benetan. Norbaitek azalduko balit, asko eskertuko nuke. Ea 2022an lortzen dudan. Bitartean, *auto-jozaitzteurrutiramesedezya!* •